



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2020ko ABENDUAREN 15ean EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2020ko abenduaren 15ean, arratsaldeko 20.07etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)  
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)  
Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)  
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)  
Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB)  
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)  
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekiztat ematen du Udal Osoko Bilkura:

### **GAI ZERRENDIA:**

#### **1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- 2020.10.27ko Udalbatzarraren akta.

#### **2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- 2020.urtekoak (230-276)

#### **3. Diru-laguntzak: txikizkako merkataritza eta ostalaritza**

#### **4. Erregu eta galderak.**

.../...

## **LEHENENGO PUNTUA**

**Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2020.10.27ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenearekin, aipatu aktak onartu ditu.

## **BIGARREN PUNTUA**

**Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2020.urtekoak (230-276)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

## **HIRUGARREN PUNTUA**

**Diru-laguntzak: txikizkako merkataritza eta ostalaritza**

ASTEASUN OSTALARITZARAKO TABERNA-JATETXE ERRETEGIENTZAKO) LAGUNTZAK EMATEA. EKONOMIKOAK PARTZIALKI ETENDA LEHENDAKARIAREN AZAROAREN	KOKATUTAKO (KAFETEGI - ETA ZUZENEKO JARDUERA GUZTIZ EDO GERATU DIRA, 2020KO 38/2020	CONCESIÓN DIRECTA DE AYUDAS DESTINADAS A LA HOSTELERIA (CAFETERIAS - BARES- RESTAURANTES-ASADORES) UBICADOS EN ASTEASU, Y CUYAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS HAN QUEDADO SUSPENDIDAS TOTAL O PARCIALMENTE COMO CONSECUENCIA DE LA
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

DEKRETUAREN BIDEZ JARDUERA ITXI IZANAREN ONDORIOZ, COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN-KRISIA KUDEATZEKO.

38/2020 Dekretuak, azaroaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko, hau xedatu du: ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezartzen da, eta kafetegi-zerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegi-gozotegi moduko establezimenduek ezin izango dute zerbitzu hori eskaini, eramateko izan ezik. Horiek Asteasuko zenbait establezimenduren diru-sarrerak kaltetu dituzte.

Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, datorren ostiralean, 100.000 biztanleko 500 biztanletik beherako intzidentzia-tasa duten herrietan ostalaritza- eta jatetxe-jarduerak murriztuta berriro irekitzeko aukera emango duen Dekretua argitaratuko da; hori 2020/12/12tik aurrera izango du eragina.

Bestalde, Asteasuko Udala beldur da udalerriko ostalaritza-establezimenduen kopurua gutxituko ote den, eta arrisku

DECLARACIÓN DE CIERRE DE LA ACTIVIDAD POR DECRETO 38/2020, DE 6 DE NOVIEMBRE DEL LEHENDAKARI PARA LA GESTIÓN DE LA SITUACIÓN DE CRISIS SANITARIA OCASIONADA POR EL COVID-19

Las medidas que recoge el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, del Lehendakari, de modificación del Decreto 36/2020, de 26 de octubre, por el que se determinan medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, que determina el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración, y según el cual los establecimientos tipo panadería-pastelería que complementariamente ofrezcan servicio de cafetería, no podrán ofrecer este servicio, salvo para llevar, han supuesto que determinados establecimientos ubicados en el municipio de Asteasu hayan visto afectados sus ingresos profesionales.

Según información facilitada por Gobierno Vasco, el próximo viernes se publicará el Decreto que habilitará la reapertura con restricciones de la actividad hostelera y de restauración en las localidades con tasa de incidencia acumulada en 14 días inferior a 500 por 100.000 habitantes, a partir del 12/12/2020.

Por otro lado, el Ayuntamiento de Asteasu está temiendo una minoración en el número de establecimientos de hostelería

larrian dago oraindik aktibo daudenak desagertzea. Kasu horretan, Asteasuko herritarrek arrisku handia izango lukete toki-eremuan horrelako zerbitzuetarako sarbidea izateko.

Ondorioz, udal honi diru-laguntza lerro bat ezartzea interesatzen zaio, deskribatu diren zuzeneko kalte ekonomikoak (aipatu 38/2020 Dekretua indarrean sartu zenetik eta 2020/12/12ko baldintzatutako irekiera arte) eta udalerriko auzotar guztiei zeharka eragingo lieketenak arintzen saiatzeko.

lido horretan, Udalak aztergai dugun diru-laguntzaren onuradun izan daitezkeen jarduerak aztertu eta ebaluatu ditu, eta horien kopurua txikia denez, udalerrian oraindik funtzionatzen duten jarduera zehatzak zehaztu ditu.

Argi dago egoerek kalte ekonomiko desberdinak dakartzatela, eta, beraz, laguntza berezian zenbatekoak ezarriko dira.

Laguntzen zenbatekoei dagokienez, egoera hauek bereizten dira:

- a) Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera.
- b) Kafetegi-zerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegi-gozotegi moduko establezimenduek ezin izango

del municipio, corriendo serio riesgo la desaparición de los que aún se mantienen activos, y en cuyo caso las y los vecinas y vecinos de Asteasu verían seriamente comprometidos los accesos a este tipo de servicios en el ámbito local.

En consecuencia, interesa a este Ayuntamiento establecer una línea de subvención, que trate de paliar los perjuicios económicos directos que se han descrito, desde la entrada en vigor del citado Decreto 38/2020 y hasta la reapertura con condiciones informada para el 12/12/2020, así como los que de forma indirecta afectarían al común de vecinos y vecinas del municipio.

En este sentido, el Ayuntamiento ha analizado y evaluado las actividades que pudieran ser beneficiarios de la subvención que nos ocupa, y ante el reducido número de las mismas, ha determinado las concretas actividades que aún funcionan en el municipio.

Es evidente que las distintas situaciones conllevan diferentes perjuicios económicos, por lo que se establecerán importes de ayudas diferenciadas.

En relación con los importes de ayudas, se distinguen las siguientes situaciones:

- a) Cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración.
- b) Los establecimientos tipo panadería-pastelería que complementariamente ofrezcan servicio de cafetería, no podrán



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

dute zerbitzu hori eskaini,  
eramateko izan ezik.

ofrecer este servicio, salvo para  
llevar.

Agerikoa da egoera desberdinek kalte ekonomiko desberdinak dakartzatela, eta, beraz, laguntza desberdinen zenbateko hauek ezarriko dira:

Es evidente que las distintas situaciones conllevan diferentes perjuicios económicos, por lo que se establecerán importes de ayudas diferenciadas, según los siguientes importes:

a) Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera: 945,00€.

a) Cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración: 945,00€.

b) Kafetegi-zerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegi-gozotegi moduko establezimenduek ezin izango dute zerbitzu hori eskaini, eramateko izan ezik: 394,00€.

b) Los establecimientos tipo panadería-pastelería que complementariamente ofrezcan servicio de cafetería, no podrán ofrecer este servicio, salvo para llevar: 394,00€.

Diru-laguntzak emateko moduari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikularen arabera, zuzenean eman ahal izango dira, salbuespenez, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk egiaztatzen dituzten diru-laguntzak.

En lo que respecta a la forma en que podrán concederse las subvenciones, el art. 22.2.c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, prevé que podrán concederse de forma directa las subvenciones en que, con carácter excepcional, se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Diru-laguntzaren onuradun izan daitezkeen jarduerak gutxi direla jakinda, ez da beharrezkoa deialdi publiko bat egitea, eta horrek garrantzitsutzat jotzen den laguntza ekonomiko bat jasotzea atzeratuko luke.

Conociendo de antemano, por su reducido número, las actividades que bien pudieran ser beneficiarios de la subvención, resulta innecesario realizar una convocatoria pública, lo que dilataría la recepción de una ayuda económica que se considera importante.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Alkorta, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)  
Kontrako botuak: 0  
Abstentzioak: 0

Votos a favor: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Alkorta, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)  
Votos en contra: 0  
Abstenciones: 0

Aurreko guztiagatik, Udalbatzarrak,

Por todo cuanto antecede, el Pleno del Ayuntamiento

#### ERABAKIA HARTU DU

#### HA ACORDADO

LEHENENGOA. Onestea ASTEASUN KOKATUTAKO OSTALARITZARAKO (KAFETEGI - TABERNA-JATETXE ETA ERRETEGIENTZAKO) ZUZENEKO LAGUNTZAK EMATEA. JARDUERA EKONOMIKOAK GUZTIZ EDO PARTZIALKI ETENDA GERATU DIRA, LEHENDAKARIAREN 2020KO AZAROAREN 6KO 38/2020 DEKRETUAREN BIDEZ JARDUERA ITXI IZANAREN ONDORIOZ, COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN-KRISIA KUDEATZEKO, I. eranskinen onuradunei, eta honako baldintza hauetan:

PRIMERO. Aprobar la CONCESIÓN DIRECTA DE AYUDAS DESTINADAS A LA HOSTELERIA (CAFETERIAS - BARES-RESTAURANTES-ASADORES) UBICADOS EN ASTEASU, Y CUYAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS HAN QUEDADO SUSPENDIDAS TOTAL O PARCIALMENTE COMO CONSECUENCIA DE LA DECLARACIÓN DE CIERRE DE LA ACTIVIDAD POR DECRETO 38/2020, DE 6 DE NOVIEMBRE DEL LEHENDAKARI PARA LA GESTIÓN DE LA SITUACIÓN DE CRISIS SANITARIA OCASIONADA POR EL COVID-19, a las y los beneficiarias y beneficiarios del Anexo I, y en las condiciones siguientes:

#### Ekonomia- eta denbora-baldintzak:

#### Condiciones económicas y temporales:

- a) 945,00 euroko zenbateko finkoa emango zaie ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxierako jardueri.
- b) 394,00 euroko zenbateko finkoa emango zaie kafetegi-zerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegi-gozotegi moduko

- a) Se concederá una cantidad fija de 945,00 euros a las actividades con cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración.
- b) Se concederá una cantidad fija de 394,00 euros a los establecimientos tipo panadería-pastelería que



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

establezimenduei (ezin izango dute zerbitzu hori eskaini).

complementariamente ofrezcan servicio de cafetería.

Aurreko a) eta b) idatzi-zatietako zenbatekoak 2020ko azaroaren 7tik aurrera sortuko dira, eta 2020ko abenduaren 12 arteko data arte.

Los importes de los apartados a) y b) precedentes devengarán desde la fecha de 7 de noviembre de 2020, y hasta la fecha de 12 de diciembre de 2020.

Baldintza orokorrak:

Condiciones generales:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eta Asteasuko udalerrian jendearentzako lokal irekia izatea.
- b) Gizarte Segurantzarekiko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunarekiko eta Asteasuko Udaleko Ogasunarekiko betebeharrak egunean izatea.
- c) 2021ko urtarrilaren 31ra arte, gutxienez, alta emateko eta publikoari irekitako jarduerari eusteko konpromisoa hartzea.
- d) Laguntza hori bateragarria izango da beste edozein diru-laguntzarekin, betiere diruz lagundutako aldiaren kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada. Gaindituz gero, emandako laguntza kenduko da gaindikinarekin zenbatekoan. Era berean, bateragarria izango da edozein finantzaketa-tresna ofizialekin (ICO, Elkargi, etab.).

- a) Estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas y disponer de local abierto al público en el término municipal de Asteasu.
- b) Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social, con la Hacienda de Diputación Foral de Gipuzkoa, y con la Hacienda del Ayuntamiento de Asteasu.
- c) Comprometerse a mantener la actividad de alta y abierta al público como mínimo hasta la fecha de 31 de enero de 2021.
- d) Esta ayuda será compatible con cualquier otra subvención, siempre que no se supere el coste del concepto en el período subvencionado. En el caso de que exceda, se minorará la ayuda concedida en la cuantía del exceso. Así mismo, será compatible con cualquier instrumento de financiación oficial (ICO, ELKARGI, etc).

BIGARRENA. Diru-laguntza honi dagokion 4.174,00 euroko gastua onartzea.

SEGUNDO. Aprobar el gasto de 4.174,00€ que corresponde a esta subvención.

Gastua aurrekontu-aplikazio hauei egoztea:

Imputar el gasto a las siguientes aplicaciones presupuestarias:

1.0000.471.221.00.02.2020  
1.0000.471.221.00.03.2020  
1.0000.471.221.00.04.2020  
1.0000.471.221.00.06.2020  
1.0000.471.221.00.07.2020

1.0000.471.221.00.02.2020  
1.0000.471.221.00.03.2020  
1.0000.471.221.00.04.2020  
1.0000.471.221.00.06.2020  
1.0000.471.221.00.07.2020

HIRUGARRENA. Alkate andreaki baimena ematea, Alkatetzaren Dekretu bidez, erabaki honen lehenengo puntuari onartutako laguntzak zuzenean eman ditzan.

TERCERO. Autorizar a la Sra. Alcaldesa para que otorgue, mediante Decreto de Alcaldía, la concesión directa de las Ayudas aprobadas en el punto primero del presente acuerdo.

#### I. ERANSKINA / ANEXO I

#### **TABERNA-JATETXEAK / TABERNAS-RESTAURANTES**

ERABATEKO ITXIERA / CIERRE TOTAL: 945,00€

ITURRI-ONDO JATETXEA  
PATXINE TABERNA  
ARGIA TABERNA  
IZURTZU ERRETEGIA

ZATIKAKO ITXIERA / CIERRE PARCIAL: 394,00€

KABELA KAFETEGIA

#### **LAUGARREN PUNTUA**

Alkate andreak hitza hartu du. Gaur arratsaldean jaso du urtero, abenduan, bozkatu egin da mozio bat, abenduaren 31n presoan aldeko manifestazioari buruzkoa.

Gauzak horrela, ez da denborarik egon aurretik gaia gai-zerrendan sartzeko.

A.F.A.ren 83 artikuluaekin bat, presazkotzat jotzeko proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Alkorta, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez)





**ASTEASUKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

Kontrako botuak: 0  
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena eztabaidatzea onartu du.

**Moziok:**

- **2020/07: EUSKAL PRESOEN URRUNTZE POLITIKAREKIN AMAITZEAREN ALDEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA**

Udalbatza honek euskal presoek Espainiako Gobernuak aplikatzen dizkien politiketara buruzko azterketa eta balioespena ezagutarazi nahi du.

Udalbatza honek honako lehen eskaera egiten du:

- Espetxeetako Lege Orokorra aurreikusten duena bete dadila, askatasunaz gabetzen duten zigorrak bete daitezzen norbere inguruetik deserrotu gabe, birgizarteratzearen printzipioek adierazten duten moduan. Zentzu honetan, 2011 urtean ETAk jarduera armatua utzi zuenean irekitako denboraldi berriaren barruan honako hau adierazten du: beharrezkoa dela beste espetxe politika bat, presoek beren gizarte eta familiako erroak dituzten lekuetatik urrun zigorrak bete beharra ekidingo duena. Politika berri horrek presoak bere familiarekin harremanak izatea erraztuko du eta adin txikiko seme-alaben ongizateari begiratuko dio, gurasoek haiekin egoteko duten eskubidea defendatuz.

Euskal gizarteak bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustu garbia egin du. Hainbat modutako eta etengabeko eskaerak egin ditu, iraganeko logiken araberrako espetxe politika behin betirako gainditu dadin.

**Ondorioz, ASTEASU-ko Udalbatzak honakoa adierazten du:**

1. 2011tik irekita dagoen errealitateari jarraiki, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu euskal presoek legedi arrunt soila eta espetxe politika normalizatu bat aplikatzeko beharrezkoak diren urratsak ematea, iraganeko logiken araberrako legedian oinarritutako egoera behin betiko gaindituz.
2. Espetxeetako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetzea eskatzen dugu, askatasunaz gabetzen duten zigorrak betetzean deserrotzerik gerta ez dadin. Askatasunaz gabetzen duten zigorrak familia eta gizarte sustraiak dituzten lekuetatik urrun betetzea ekidingo duen espetxe politika bat ezinbestekoa jotzen dugu.

3. Premiazkotzat jotzen dugu egungo urruntze politikari amaiera ematea eta Covid-19aren egungo testuinguruan gure sostengua adierazten diegu honako egitasmo hau artikulatzera zuzendutako proposamen guztiei: espetxeratu guztiak orokorrean eta pertsona preso bakoitza, partikularrean, hurbil ditzatela beren familia inguruetik hurbilen dauden espetxeetara. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan birkokatzea dakar neurri horrek.

4. Helburu hau betetzeak modu erabakigarrian esku hartuko luke euskal gizartean eta politikan iraganarekin lotutako etapa bat ixten lagunduko luke. Gainera, aukera emango luke, biktima guztiak oroituz, bizikidetzaren demokratikoan ardaztutako orainaldiko eta etorkizuneko denboraldi berri bat eraikitzeko.

Adierazpen hau, honako erakunde eta arduradunei helaraziko zaie:

- Pedro Sánchez, Espainiako presidenteari; Iñigo Urkullu, Lehendakariari; Maria Chivite, Nafarroako Presidenteari; Jean-René Etchegaray, Euskal Hirigune Elkargoko presidenteari.

- Aiztondo bailarako euskal presoak aurkitzen diren Espetxeetako Zuzendaritzei.

Azkenik, udalbatza honek datorren abenduaren 31n "*Orain presoak! Euskal Presoak Euskal Herrira*" lema izango duen eta Villabona eta Zizurkil arteko ibilbidea gauzatuko duen manifestazio bat antolatzea babesten du, herritarrei parte hartzeko deia luzatzen die eta ASTEASUko udala mobilizazioko antolatzaile eta deitzaile gisa agertzea onartzen du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Alkorta, Iturbe, Usandizaga, Otegui)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 1 (Gomez)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **BOSGARREN PUNTUA**

### **Erregu eta galderak.**

Alkate andreak hitza hartu du. Udal aurrekontuetan partida ireki zen bere egunean herriko komertzioa sustatzeko Bonoen kanpaina aurrera eramateko. Merkatariekin bilera egin da Oinarriak azaltzeko eta gustora hartu dute ekimena. 20 €ko erosketarako, udalak 10€ jarriko ditu. Denetara 11 merkataritza ditugu herrian eta 4.400 eurotako partida dugunez bakoitzari 44 bono tokatzen zaizkio. Kanpaina abenduaren 26tik urtarrilaren 11 bitarte luzatuko da. Merkatariek bere eskaera egin behar dute lehenengo eta bonoen kostuen %60<sup>a</sup> aurreratuko zaie. Gero dena justifikatzen dutenean beste %40 a emango zaie. Justifikazio epea urtarrilaren 18an amaituko da.

Bestalde, baita ere informatu du alkatetzan mezu homófono bat jaso duela eta Ertzaintzan salaketa jarri duela. Ertzaintza berak aztertuko du zein I.P-tik bidalia dagoen.

Gomez jaunak hitza hartu du. Galdetu du zer dagoen aurreikusita Olentzero ekitaldiari buruz.

Alkorta andreak hitza hartu du. Aurten, frontoian egingo da harrera, eskolan dauden burbullak errespetatuz, eta haurrak eserita egongo dira harmaitan, dagokion segurtasun-distantziak errespetatuz eta ezagunak diren beste neurriak gordetzen. Erregeen ekitaldiari dagokionez, minimoa egingo da: 3 erregeek opariak banatuko dituzte LH3koen artean, kabalgata egin gabe, eskolako burbulletan.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:21 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2020ko abenduaren 15ean.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea